

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA


Anti-atomoak 1.000 segundotan

GENEVAKO CERN ikerketa-zentroko ikerlariek anti-hidrogenozko atomoek hamazazpi minutuz irautea lortu dute, ALPHA izeneko saiakeratan. Lortu diren atomoek elektroi positibo bat eta protoi negatibo bat zituzten, hidrogeno atomo baten aurkakoa hain zuzen ere.

Zientzialarien ustetan, Big Bang-aren ondoren materia eta antimateria

kantitate berdinetan sortu ziren, baina egungo unibertsoa materiaz osaturik dago; antimateria desagertu egin zen. Eta usteak ustel izaten dira frogak aurkitzen ez diren bitartean.

Esan bezala, 1.000 segundotan eskutan izan dute zientzialariek anti-hidrogenoa. Etorkizunean denbora luzeagoan izatea espero dutenez, antimateria desagertzeko duen joera hobeto ulertuko dutelakoan daude.



NOSEQ.COM

Sony, hackerren esku

PLAYSTATION-A ERABILTZEN DUTENEK badakite jada euren datu pertsonalak, Sonyk izateaz gain, ezezagunen esku ere egon daitezkeela.

Apirilaren 20an, Playstation 3 delakoa atzitzeko zerbitzaria "mantenuan" zegoela iragartzen hasi zen. Egoera horrek uste baino gehiago iraun zuenez, Sonyk ezin izan zuen luzaroan sekretua ezkutatu, hots, apirilaren 18an eta 19an hackerren erasoak jasan zuela eta haiek 77 milioi erabiltzaileen datu pertsonalak kopia zituztela, horien artean 2,2 milioi kreditu-txartel.

Baina historia honek jarraipena izan zuen maiatzaren 2an, Sonyk iragarri zuenean berea den SOE zerbitzua ere apirilaren 16an erasotua izan zela, eta ia 25 milioi erabiltzaileen datu pertsonalak, 12.700 kontu korronte barne, bateren batek kopia zituela.

Segurtasun informatikoaren alorrean lan egiten duen Ponemon Instituten enpresa estatubatuarraren arabera, milaka milioi dolarreko galera izango du Sonyk gertatutakoaren ondorioz, isunak, indemnizazioak, sistema informatikoen berrezarpenak... kontuan hartuta.



PLAYSTATION®
Network

Snapled, eskumuturreko ordenagailu eramangarria

Human Media Lab laborategiko ikerlariek eskumuturrean, ordularia izango balitz bezala, eraman daitekeen ordenagailu malgua aurkeztu dute. Tinta elektronikorekin funtzionatzen du eta telefono deiak egiteko ahalmena ere badu.

<http://ttiki.com/27422> (Gaztelaniaz)

Gero eta izotz gutxiago Artikloan

Neguan, Artikoko izotz-geruza handituz joaten da, eta udaberrian txikitzen hasi. Aurten, joan den martxoaren 7an lortu da izotz-eremurik zabalena; hori neurketak hasi zirenez geroztik txikiena izan da, 2006koaren antzekoa.

<http://ttiki.com/27423> (Gaztelaniaz)

Lurraren berokuntzaren eragina uztetan

Azken 30 urteotan gari eta arto uztak %5 inguru txikitu dira, eta soja eta arrozarenak, berriz, beren horretan mantendu dira, *Science* aldizkarian argitaratu diren zenbait ikerketaren arabera. Uzta txikitzeak eta salneurrien igoetzeak batera joaten diren elementuak dira. Honen guztiaren jatorrian Lurraren beroketa dagoela uste dute ikerlariek.

<http://ttiki.com/27424> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16